


Zurekin

Nerea Loiola Pikaza idazlea

«Gaur egun, konplexuago izaten uzten digute»

'Epizentroa' ipuin-bilduma da debarrak helduei zuzenduriko aurreneko liburua



Nerea Loiola Pikaza, 'Epizentroa' liburuarekin.

TXANI RODRÍGUEZ
Igandea, 17 urria 2021, 21:30

'Epizentroa' ipuin-bilduma da Nerea Loiolak (Deba, 1985) helduei zuzenduriko aurreneko liburua. Estilo zuzenarekin, elipsia abileziak erabiliz eta narrazioen elementuak hautatzeko eta txirikordatzeko trebetasuna lagun, idazleak gure gaurkotasanaren erradiografia zorrotza eskaintzen digu. Ingeniaritza Mekanikoan graduatua, Raymond Carver, John Cheever, Alice Munro, Harkaitz Cano edo Eider Rodriguezen literaturaren zalea da Loiola. 'Sexting'a, lan-munduko prekarietatea, sexu-harremanak edo gaixotasunak sortzen dituen lurrikara emozionalak dira, besteak beste, 'Epizentroa'n jorratzen diren gaiak; denak, egilearen epizentrotik gertu daudenak.

- Gure gaurkotasanaren kronika zorrotza da 'Epizentroa'. Arrotzagoa da gaurko gizartea orain dela hamarkada batekoa baino?

-Arrotzago ez dakit, baina konplexuago garena iruditzen zait behintzat; agian orain konplexuago izaten uzten digutelako. Nik ez dakit noraino baimentzen dioten emakumeek beren buruari konplexutasun horri jarraitzea. Izan ere, egun, zalantzan jartzen ditugun gauza batzuk, lehen, ezin ziren zalantzan jarri.

- Arazo berri-berriei buruz hitz egiten diguzu liburu honetan, horien artean, 'sexting'a agertzen da.

-Gaia oso berria da, baina ama-alaben arteko harremana ez da hain berria. Nik jartzen nuen neure burua nerabetasun garaian eta irudika nezakeen neure amak nola bizi zituen nire garai hartako arriskuak. Orain ama naiz ni eta are hobeto irudika dezaket. Eta zenbat aldiz gertatu zaigun ikusten dugula gure alaba eta gure semea bide bat hartzen eta esaten dugula: Ze nolako kolpea hartuko duen bide horretatik joanda. Baina utzi behar diogu bide hori egiten, eta agian hartuko du kolpea edo agian ez. Ni, ipuin horretan, hurrengo pausoa kokatu naiz, hau da, neskak kolpea hartu du, eta orduan begiratzen diot amarekin zer gertatzen zaion. Nola jartzen duen zalantzan egindako guztia eta egin ez dena. Horri buruz hitz egin nahi nuen: maitasuna, amorrua eta ezintasuna, eta dena batera korapila-tzen den uneari buruz.

- Andrés Neuman idazleak esaten du ipuin bat ondo kontatze, sekretu bat gordetzen jakin behar dela. Zuk abilezia handiarekin erabili duzu elipsia, kontatzen ez dena. Esparru handia uzten diozu irakurleari.

-Bai, niri horrelako literatura irakurtzea gustatzen zait. Hasten baldin banaiz liburu batekin eta azaltzen badidate dena, aspertzen naiz, ez didatelako nire pelikula egiten uzten. Batzuei ez zaike gustatzen ordea. Batzuek, nire liburua irakurri ostean, esan didate: «oso ondo, baina ez dakit zer gertatu zaion honi».

- 'Exit' ipuina oso sakona eta, aldi berean, oso ironikoa iruditu zait. Laburbilduz, pertsonaia batek harreman heterosexuak ere gustuko dituela kontatze bere eragozpenak erakusten dizkigu.

-Bai, beste ipuinak egunerokotasunean errotuak dira, baina 'Exit' distopikoa da. Jolas bezala, eraiki ditugun kontzeptu modernoan deseraikuntzari eutsi nahi izan diot. Apur bat nire kontraesanetatik ere abiatuta: Zer erakusten dugun, zer baimentzen diogun geure buruari, zer eragiten ez digun, baina gero benetan eragiten dugun... Zalantza izan nuen hasieran ipuin honekin zeren eta oso ezberdina da... Azkenean erabaki nuen sartzea, nahiz eta distopia bat izan, beste ipuinen gaiekin harremana bazuelako.

«Idazleok beti pentsatu behar dugu irakurlea gu bezain inteligentea dela, ezin dugu pentsatu irakurlea gu baino motelagoa denik»

- Gaixotasunak presentzia handia du.

- Bai, gaixotasuna da halabarrez gelditzen gaituen gauza bakarra. Ez da nahita egin dudana ezer, baina konturatu nintzen idazten nuen bitartean anbulan-tzia asko agertzen zirela (barre egiten du) niri behintzat, oso azeleratuta nagoenean, nire burua alde batera uzten, aurrera begira bakarrik nagoenean, gaixotasunak, estresak, gelditzen nau, eta nora noan, zertarako eta horrelako galderak egiten dizkiot neure buruari. Gaixotasuna bira-puntu bat da, literaturan eta bizi-tzan.

- Pertsonai protagonista guztiak emakumezkoak dira. Aldez aurretik hartutako erabakia izan da?

-Ez, hau horrela aterata da. Nik ipuinak banan-banan idatzi ditut, ez neukan proiektu oso bat. Eta bigarren edo hirugarren ipuinerako konturatu nintzen emakumearen ahotsa ateratzen zitzaidalda beti, izan lehenengo pertsona, izan hirugarrenean, izan ume batena, edo gazte baten ama. Gaiak niretzat oso gertukoak dira, nire epizentrotik ateratako gaiak dira, eta horregatik uste dut sentitu nuela emakumeen ahotsa eman beharra; beste gai mota batzuk aukeratu izan banitu, agian gizonezko ahotsera joko nuke.

- Zugandik gertu daude gaiak, baina ez duzu autofikziora jo.

-Hori da kontua: gaiak gertukoak ditut, kezkatu nauten gaiak edo zalantzak sortzen dizkidatenak, beldurra ematen didatenak, baina ez ditut autofikzioara eramane. Nik nahi nuena zen gai horiek nigandik aterata, ikuspuntu ezberdinetatik ikusi, izan beldurra, izan zalantzak, izan ezinak, eta arakatu gero nondik landu gai horiek. Bazetorkidan ideia bat, edo pertsonaia bat, eta gero pertsonaia horrek sentitzen zuen zerbaite, eta pixkanaka-pixkanaka joaten nintzen bilatzen nirekin zein lotura izan zezakeen irudi horrek, edo zein beldurretik, zein minetik zetorkidan irudi hori. Ipuinek, beraz, nire pentsamenduetarekin dute lotura.

- Estilo zuzena, ez bereziki loretsua.

-Bai, elipsiari buruz komentatu dugunaren antzekoa da. Niri horrelako literatura gustatzen zait. Tarteka beste liburu poetikoago batzuk ere irakurtzen ditut, eta gustura gainera, baina niri zuzentasuna gustatzen zait, eta hor ondo moldatzen naizela uste dut, asmatu dezakedala esan nahi dudana hori zehaztasunez esaten, eta ipuinen kasuan behintzat uste dut horrela irabazti egiten dutela. Azkenean, egin dut kristoren ariketa soberan zegoena kentzen. Eta, batzuetan, kendu dut hiru lerroko esaldi zoragarri bat, maite nuena pilo bat, baina funtzionatzen ez zuenez, ez erritmoan ez doinuuan, kendu egin dut.

- Emozioa dago, baina ez sentimentaleriarik. Ez dakit nola lortu duzun.

-Ba hori ere lortu dut gauzak ezabatzen. Nik hasieran, idazterakoan, dena idatzi nuen, baina gero konturatu nintzen efizienteagoa dela zaurian ez sakatzea. Adibidez, 'Exit' ipuinean gazteari zer gertatzen zaion kontatu banu, zaurian behatzarekin sakatzea izango zen. Emozio gogorrekin egin dezakezu bi gauza: hor utzi eta irakurlea iritsi dadila sakontasun horretara edo zuk beha-tzarekin zaurian sakatu. Zer informazioa ematen dudana, badakite irakurlea iritsiko dela min horretara, zaurian sakatu gabe. Saiakera batean irakurri nuen idazleok beti pentsatu behar dugula irakurlea gu bezain inteligentea dela, ezin dugula pentsatu irakurlea gu baino motelagoa denik. Nik uste dut horrek funtzionatzen duela, bestela sentimentalkeria horretan erortzeko arriskua dago.


TEMAS Euskal Literatura, Euskera

TENDENCIAS

Comentarios


PATROCINADA

Fotos



Vídeos

Lander Álvarez de Eulate, zuhaitzak artelan bilakatzen dituen lorezaina



EL CORREO

© DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.
C/ Gran Vía 45, 3ª planta, 48011 Bilbao



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

vocento

Contactar | Aviso legal | Condiciones de uso | Política de privacidad | Publicidad | Mapa web | Política de cookies